

## (Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren laburpena)

### 90. artikulua. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

Indarrean dagoen legearen arabera, 201/2008 Dekretuan, 13. artikuluan, 3. atalean, DBHko hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta aldeaz aurretik ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, arau hauei jarraiki:

a) Biltzeko eskubidea baliatuta eskoletara ez agertzearen aldeko deialdia egin nahi dutenek, beren iniziatibaz edo elkarteren batek luzatutako deia jarraituz, ez bertaratzeko proposatutako eguna baino 72 ordu lehenago zuzendaritzan eskatu beharko dute ordezkarien batzordea biltzeko baimena.

b) Proposatutako ez agertze eguna baino, gutxienez, 48 ordu lehenago ordezkarien batzordearen bilera egingo da. Bilera honetan deialdiaren arrazoiak eta bere aurrean dauden jarrera desberdinak jasotzen dituen agiri bat idatzi beharko dute. Bileraren akta, partaideen oharpenarekin, zuzendaritzara eramango dute esandako epea baino lehen.

c) Aipatutako eguna baino 48 ordu, gutxienez, lehenago eta egun horretako 10:45 aurretik gelaz gelako asanblada egingo dute. Asanblada horretan eta dagokion irakaslearen aurrean, delegatuek idatzitako agiria irakurriko dute, deialdiaren arrazoiak eztabaidatuko dute eta bozketa egingo dute. Bozketa aurretik, ordezkariak ikasketa burutzan hartuko duten aktan emaitzak jasoko dituzte. Akta hori taldearen ordezkariak eta une horretan gelan dagoen irakasleak izenpetuko dute. Urrats hauek bete eta berehala ikasketa burutzara eraman beharko dute akta.

d) Botoak zenbatu ondoren, bozketaren emaitzak argitara emango dira institutuko atarian eta irakasle gelan. Ez agertzearen aldeko emaitza suertatuz gero, horren berri ematen duen familientzako ohar bat prestatuko du zuzendaritzak, ikasleen bidez helaraziko diena. Ohar honetan, aipatutako Dekretuaren 14. artikuluan 3. paragrafoak esaten duenez, DBHko adin gutxiko ikasleek guraso edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute. Baimen hori deitutako ez agertze eguna baino, gutxienez, 24 ordu lehenago tutoreei emango diete. Egun horretan baimenik gabe institutura ez etortzea jokabide desegokitzat hartuko da eta horri erantzuteko neurri zuzentzailea ezarriko zaio, familiei idatzizko ohararazpena emanez.

e) Deialdiarekin bat datozen ikasleek eta familiaren baimena izango dutenek edo adin nagusikoak izango direnek ez dute zertan etorri beharko Institutura eskola jasotzera. Institutura etorriko diren ikasleek eskola izango dute, deialdiak lagunduko duen normaltasunez, dagokien irakasleen edo, behar izanez gero, zaintza daukatenen ardurapean.

f) Edonola ere, aurreikusitako azterketak mantendu egingo dira jarritako orduetan.

## (Extracto del Reglamento de Organización y Funcionamiento)

### Artículo 90. Regulación de las ausencias colectivas

Según la normativa vigente, artículo 13, apartado 3 del Decreto 201/2008, las decisiones colectivas con respecto a la asistencia a clase que adopten los alumnos y alumnas a partir de tercer curso de la ESO no tendrán la consideración de conducta inadecuada, contraria o que perjudica gravemente la convivencia, cuando se hayan adoptado como resultado del ejercicio del derecho de reunión y hayan sido comunicadas previamente al director o directora, de acuerdo con las presentes normas:

- a) El alumno o alumna o un grupo de ellos o ellas que en el ejercicio del derecho a reunión desee proponer la inasistencia a clase, bien por iniciativa propia o bien siguiendo una convocatoria de un colectivo, deberá pedir permiso razonado en dirección para reunir a la junta de delegados y delegadas del centro al menos 72 horas antes del inicio de la jornada en la cual se propone la inasistencia.
- b) La reunión de la junta de delegados y delegadas se efectuará al menos 48 horas antes del inicio de la jornada en la cual se propone la inasistencia. En esta reunión se elaborará un escrito explicando los motivos de la convocatoria y reflejando las diferentes posturas frente a ella. Se levantará acta, con reflejo de los asistentes y será depositada en dirección antes del plazo citado anteriormente.
- c) Al menos 48 horas antes de la citada jornada y antes de las 10:45 de ese mismo día, se realizará una asamblea de clase. En esta reunión y con la presencia del profesor o profesora correspondiente se leerá el escrito elaborado por la junta de delegados y delegadas del centro, se debatirá sobre las razones de la convocatoria y se votará el seguimiento a la misma. En un acta preparada a tal efecto y que el delegado o delegada recogerá previamente a la votación en jefatura de estudios, se consignarán los resultados de la votación. Dicha acta será firmada por el delegado o delegada de la clase y por el profesor o profesora que está presente en el momento de la votación. Inmediatamente después se entregará en jefatura de estudios.
- d) Realizado el recuento de votos, el resultado se hará público en el tablón de anuncios de la entrada del Instituto y en la sala de profesores. Si el resultado fuese favorable a la inasistencia, el equipo directivo elaborará un escrito de comunicación a las familias que se enviará mediante el alumnado. En dicho escrito, y en atención al artículo 14 párrafo 3 del mencionado Decreto, se requerirá el permiso escrito de los padres, madres o representantes legales de los alumnos y alumnas de 3º y 4º de la ESO menores de edad. Dicho permiso será entregado al tutor o tutora al menos 24 horas antes del inicio de la inasistencia colectiva convocada. La inasistencia a clase ese día sin el correspondiente permiso familiar tendrá la consideración de conducta inadecuada y será objeto de medida correctora con la correspondiente notificación escrita a la familia.
- e) Los alumnos o alumnas que se adhieran a la ausencia colectiva y dispongan del permiso familiar o sean mayores de edad no acudirán al instituto a cursar las materias que correspondan. Los alumnos y alumnas que acudan cursarán las materias correspondientes con la mayor normalidad que permita la propia convocatoria, siendo atendidos por el profesorado que corresponda o por el profesorado de guardia, si fuese necesario.
- f) En cualquier caso se respetarán los exámenes programados, a la hora programada.